

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2022ko IRAILAREN 28ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratu direnak:

Beatriz Artolazabal andrea, Kontseiluko presidentea.

Josu Urrutia jauna, Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunde ordezkatzuz.

José Manuel Palacios jauna, hezkuntza-arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Nerea Urien andrea, osasun-arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Ibon Arbaiza jauna, nekazaritza-arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Mikel Hidalgo jauna, kanpo-ekintzaren arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Amaia Barredo andrea, ingurumen-arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Leixuri Arrizabalaga andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Milagros Domínguez andrea, Iñigo Eguren jauna, Arantza Acha andrea, Mónica González andrea, Natalia Rodríguez andrea, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, Jesús Ochoa jauna eta Olga García Martínez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Zalao Pérez andrea, Estela Ciprián andrea, Alberto Cereijo jauna eta Marta Macho andrea, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Gainera, presidenteak gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira:

Ana Telleria andrea, eLankidetzaren koordinazio teknikoko zerbitzuko kidea, Kontseiluko idazkaritzari laguntzeko.

Marlen Eizagirre andrea, eLankidetzako koordinazio teknikoko zerbitzuko, gai-zerrendako 4. punturako.

Alberto Ruiz de Aza, Bilboko Udala ordezkatzuz, gai-zerrendako 5. punturako.

Ezin agertu izana adierazi dute:

Marian Olabarrieta andrea, gizarte-ongizatearen eta gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Hernando Lacalle jauna, ogasun-arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ernesto Sainz jauna, EUDEL ordezkatzuz.

Gorka Urrutia jauna eta Elsa Fuente andrea, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Lekua: eLankidetzaren egoitza.

Eguna eta ordua: 2022ko irailaren 28a, 11:00etan.

Urteko hirugarren ohiko bilkura hasi da, presidentearen agurrarekin eta aurkezpen-txanda batekin. Ondoren, presidenteak adierazi du agenda-arrazoiak direla-eta ordubetez baino ez dela bilkuraren buru izango, eta ondoren Kontseiluko presidenteorde Josu Urrutiari utziko diola saioaren buru izateko ardura. Honako hau da bilkura honetarako aurreikusitako gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea
2. Barne-erregelamendurako egindako aldaketak aurkeztea eta onartzea
3. eLankidetzaren 2021eko memoria aurkeztea
4. (H)ABIAN 2030 estrategiako adierazleen gida aurkeztea
5. 2030 Agendaren bertakotze-prozesua aurkeztea
6. Galde-eskeak

Irakurketaren ondoren, lehen puntuari ekin dio presidenteak:

1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Inork ez dio inolako oharrik egin 2022ko uztailaren 18ko bilkuraren aktari, eta bertaratuak akta aho batez onartu dute.



Akta_GLEK_2022.07.
18.pdf

2. BARNE-ERREGELAMENDURAKO EGINDAKO ALDAKETAK AURKEZTEA ETA ONARTZEA.

Presidenteak gogorarazi du aurreko bilkuran –uztailaren 18koan– 2016ko urriaren 26an onartutako barne-erregelamenduaren aldaketa-proposamen bat aurkeztu zela. Alderdi batzuetan sakontzeko premia detektatu zen bilkura horretan, eta, hori horrela, ekarpenen epea irailaren 9ra arte zabaltzea adostu zen eta erregelamenduaren onarpena bilkura honetara arte atzeratzea. Bilkura horretan partekatutakoaz gain, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ekarpenak jaso direla adierazi du.

Azaltzen jarraitu duenez, irailaren 13an bildutako Batzorde Iraunkorreak jasotako ekarpen guztiak berrikusi ziren eta barne-erregelamendua aldatu zen bilkura honen deialdiarekin batera bidalitako bertsioaren arabera.

Kontseiluko idazkari Noemi de la Fuenteri eman dio hitza aldaketa horiek aurkeztu ditzan.

Adierazi du lehenengo aldaketa 2. artikuluan bildu dela, Batzorde Iraunkorrek hala proposatuta, Kontseiluan parte hartzeko lankidetzako beste euskal gizarte-eragile batzuen kandidaturen balorazio-prozesuan parte hartzeko batzordeko kideek erakutsitako interesarengatik.

4. artikuluan erakutsi du Zeharrek egindako iradokizuna bildu dela erregelamenduan osoko bilkurarako gaiak proposatzeko bideak jasota uzteko.

8. artikuluan adierazi du osoko bilkurako pertsona guztiak deliberazioetan parte-hartzearen garrantzia jaso dela, eta, horrekin batera, presidentziak izan beharreko rola parte-hartze handiago hori bermatzeko, Koordinakundeak hori eskatuta.

12. artikuluan adierazten da barne-erregelamendua onesten dela Kontseiluaren osaera eta funtzioak ere arautzen dituen tresna gisa (batez ere 2. artikuluan ezarritakoaren arabera).

13. artikuluan Koordinakundearen genero-taldeak egindako beste ekarpen bat bildu da, bilerak deitzeko, bileren iraupena ezartzeko eta antzeko gaiak erabakitzeke garaian zaintzak kontuan hartzea duen garrantziari buruzkoak.

14. artikuluan nahitaezko txostenak egiteko prozesuari egindako xehetasun batzuk barne hartu dira, Batzorde Iraunkorreko kideek eskatuta, azken txostenen esperientziari jarraikiz (programen dekretua, ebaluazioa eta 2018-2021 aldiko IV. Gida Planaren luzapena), proposatzen duen organoaren denborekin eta parte-hartzearekin zerikusia dutenak.

15. artikuluan, eta Zeharrek eskatuta, taldeak sortzen direnean talde horiek izango duten iraupena ezartzea barne hartu da, sartzan diren pertsonen argi izan dezaten zertara konprometitzen diren.

Fernando San Martínek 7. eta 8. artikuluetako paragrafoetan identifikatutako zenbakikuntza-akatsak zuzendu dira.

Azkenik, Noemí de la Fuentek ikusi du ez dela kontuan hartu Zeharrek bilkura egiten denetik gehienez 15 eguneko epean aktak egiteari buruz egindako proposamena, Batzorde Iraunkorra osatzen duten kideek ez baitiote iritzi neurri horrek balio erantsirik duenik.

Aurkezpena amaitutakoan, eta bertaratutakoek ezer adierazi ez dutenez, presidentek bozketa egin du eta aho batez onartu da dokumentua.



BARNE_ERREGELAM
ENDUA_Euskal_Kont

3. ELANKIDETZAREN 2021eko MEMORIA AURKEZTEA

Presidenteak adierazi du uztailaren 15ean onartu zuela Kontseilu Errektoreak eLankidetzaren 2021eko jardueren urteko [memoria](#), zeina deialdiarekin batera igorri baitzen euskaraz eta gaztelaniaz. eLankidetzaren zuzendari Paul Ortegarari eman dio hitza memoriaren aurkezpen labur bat egin dezan.

Paul Ortégak bere aurkezpena hasi du dokumentu al bait bisualena eta didaktikoena egitearen aldeko apustua aipatuz, eta honako hauek nabarmendu ditu: laburpen-orria, atalen artean hiperestekak sartzea, eLankidetzaren webgunean eskuragarri dauden materialetarako sarbidea eta ekimen guztiak bitzen dituen Excelerako sarbidea.

Adierazi du, gainera, Kontseilu Errektoreak memoria onartu zuen egunean Ekonomia eta Ogasun Sailak ez zuela oraindik argitaratu 2021eko EAEko Administrazio orokorraren urteko aurrekontu eta kontuen likidazioa, eta, hori horrela, 2.1 eta 2.3 idatz-zatietako grafikak eguneratu gabe zeudela. Eta garapenerako laguntza ofizialak termino erlatibotan Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu totalarekiko izandako atzerakadaz abisatu du.

Paul Ortegak esandakoak eskertu ditu presidentek, eta tarte bat zabaldu du komentarioak eta ekarpenak partekatzeko.

Josu Urrutiak egiten ari diren hobekuntzak onartu ditu. Pertsonen kopuruari dagokionez politikaren hedadura zehazteko bidean aurrera egiteko eragile guztiek duten baterako erantzukizuna onartu du. Hiperesteka duen Excelean Eusko Jaurlaritzaren beste sail, ente eta erakunde autonomoen informazioa biltzen duen memoria falta dela ikusi duela adierazi du. Eta azalpen bat eskatu du memoriako 40. eta 41. orrietako zifra batzuei buruz.

Onartutako betebeharren, egindako ordainketen eta periodifikazioen arteko aldeak azaldu ditu Noemí de la Fuentek.

Natalia Rodríguezek Koordinakundearen izenean eskatu du ekitaldiaren aurrekontua aurkezten denean beste sail, ente eta erakunde autonomoen garapenerako laguntza ofizialeko zifrak eskuratzeko posibilitatea izatea, argazki osoa izateko.

Noemí de la Fuentek datuak lortzearen zailtasuna azaldu du, sail batzuk ez baitute aurrekontuetan esleitutako partida espezifikorik, eta, gainera, egikaritzapen-datuak biltzea lehenesten dela, datu horiek baitira ELGAri adierazi behar zaizkionak. Beatriz Artolazabalek Gobernuak lankidetzaren egiteko duen borondatea nabarmendu du berriro ere, eta ohartarazi du kontsultak bikoiztea kaltegarria izan litekeela.

Jesús Ochoak adierazi du Koordinakundeak azaroan-abenduan egiten dituela aurreikuspenak, baina nahikoa izango litzatekeela datu horiek urtarrilean edo otsailean partekatu ahalko balira. Datuak jaso orduko partekatzeko konpromisoa hartu du Noemí de la Fuentek, eta data martxoan-apirila izan daitekeela adierazi du.

4. (H)ABIAN 2030 ESTRATEGIAKO ADIERAZLEEN GIDA AURKEZTEA

Presidentek gogorarazi du 2017ko martxoan, elaborazio-prozesu partizipatibo baten ondoren, (H)ABIAN 2030 aurkeztu zela, eraldaketa sozialerako hezkuntzako euskal estrategia, eta, horrekin batera, 2020 eta 2021 bitartean adierazleen batera bat eta oinarritzko lerro bat landu zela, zeinak 2021eko ekainaren 29ko Kontseiluko bilkuran aurkeztu baitziren, eta bilkura horretan gida bat aurkeztu zela, ondoren landutakoa, informazioa ulertzea eta informazioaren beraren jasotze-prozesua errazteko, eta eLankidetzako teknikari Marlen Eizaguirreri eman dio hitza, hark dinamizatu baitu gida egin duen taldea.

Marlen Eizaguirrek gogorarazi du laguntza eskaini nahi zaien 16 aldaketa identifikatu direla estrategian eta aldaketa horiek lortzeko honako puntu hauetan aldaketak beharrezkoak zirela identifikatu zela, hain zuzen ere: 1) subjektuak, kolektiboak eta entitateak berak; 2) erakunde publikoak; 3) eraldaketa sozialerako hezkuntzaren ikuskera bera eta 4) eraldaketa hori hezkuntza-praktika koherenteetan gauzatzea.

Gogorarazi duenez, 2021ean, 16 aldaketa horiek neurtzeko helburuarekin, hasierako oinarritzko lerro bat definitu zen 46 adierazlerekin –haitako batzuk Europar Batasunak planteatzen dituenekin bat datozelarik–, gehi genero-ikuspegitik aldaketetara lotutako beste 8 adierazle. Eta lerro horri jarraikiz lan egin da batzorde batean, zeinean aktiboki parte hartu duten Donostiako Udalak, Arabako Foru Aldundiak, Jesusen Lagundiaren Euskadiko ikastetxeek eta eLankidetzak.



Guía%20indicadore
s%20CVCD.pptx

Etorkizunera begirako erronka gisa planteatu du erakunde bakoitzak identifikatu dezala –bere orientazioaren edo estrategiaren arabera– zein aldaketa eta adierazleri egin diezaiekeen jarraipena (gutxienez aldaketa bakoitzeko adierazle batekin hasiz eta pixkanaka adierazle berriak sartuz) eta gonbidatu egingo direla, halaber, eraldaketa sozialerako hezkuntzaren aldeko apustua egiten duten erakundeak, (H)ABIAN strategiako kide ez badira ere. Iradoki du ez direla onartu behar gainditu beharreko azterketa gisa, baizik eta aurrerapausoak ikusarazteko ebidentzia gisa. Eta gogorarazi du 2025ean bitarteko ebaluazio bat burutuko dela eta 2030ean azken ebaluazio bat.

Noemí de la Fuentek jakinarazi du jasotako ekarpen batzuk barnean hartzen ari direla baina dokumentua itxi bezain laster eLankidetzaren [webgunean](#) eskuragarri egongo dela.

Aurkezpena eskertu du presidenteak eta nabarmendu du gure ekintzen inpaktuaren neurketa erronka bat dela eta aurkeztutako adierazleen gida beste urrats bat dela helburu horretan. Horren ondoren, galderen, ekarpenen eta komentarioen txanda zabaldu da.

Arantza Achak adierazi du aurreko astean "Hezkuntzaren eraldaketari" buruzko mundu goi-bilera egin dela New Yorken hezkuntza-prozesuei orokorrean bultzada bat emateko helburuarekin. Nazioarteko erkidegoak aurrerapauso esanguratsuak lehentasunezko zein 5 lerrotan eman behar dituen adierazi du: 1) hezkuntzaren digitalizazioa; 2) eskolak berezko ingurune eraldatzaile izateko eraldatzea; 3) irakasle-lanbideari balioa ematea; 4) hezkuntzarako finantzaketa; 5) garapen jasangarrirako hezkuntza bere alderdi guztietan, horrek 2030 Agendaren 4.7 helmugarekin lotzen duelarik.

Beatriz Artolazabalek azaldu du Eusko Jaurlaritzak hiru trantsiziori egin behar diela aurre: digitalizazioa, ingurumena, eta gizarte-politikak edo garapen ekonomiko orekatua. Helburu horiek lerrokatuta daudela uste du.

Marlen Eizaguirrek jakinarazi du UN Etxea-UNESCO Association Basque Country elkarte berriki sartu dela (H)ABIAN estrategian.

Bestelako ekarpenik ez zegoenez gai-zerrendako bosgarren puntuari ekin zaio.

5. 2030 AGENDAREN BILBOKO BERTAKOTZE-PROZESUAREN AURKEZPENEA

2030 Agendak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko estatu azpiko erakundeek duten rola garrantzia nabarmendu du presidenteak, batez ere udalerrien kasuan, herritarrengandik hurbilekoak baitira. Gogorarazi du 2021eko abenduaren 13ko bilkuran Eusko Jaurlaritzaren Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiak 2030 Agendaren lehentasunen euskal programa eta

Eragile anitzeko foroa aurkeztu zituela. Eta adierazi du Bilboko Udaleko Lankidetzak, Bizikidetzak eta Jaietako zuzendari Alberto Ruiz de Azua gonbidatu dela bilkura honetara 2030 Agendaren Bilboko bertakotze-prozesua aurkeztu dezan. Horren ondoren, barkamena eskatu du alde egin behar izateagatik, Josu Urrutiari utzi dizkio presidente-lanak eta bileratik joan da agenda-arrazoiak tarteko.

Bilkurarako gonbidapena eskertu du Alberto Ruiz de Azuak eta bere azalpena hasi du udala Garapen Jasangarrirako Helburuak bere arloan txeratzeko egiten ari den prozesua azaltzeko. Bertakotze-planaren elaboraziora iritsi arte izan diren etapa guztiak azaldu ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek 2016an beste euskal udalerririk batzuekin batera Bilbon 2030 Agendaren [euskal adierazpena](#) sinatu zutenetik.

Eta 2030 Agendaren bertakotze-prozesuan sakondu du, zeina 2021az geroztik egiten ari diren, lankidetzak-arloaren gidaritzapean, baina alkateak bere egin duena. Prozesuak metodologikoki oinarritzat dituen lau helizeak aurkeztu ditu.

Amaitu du esanez hurrengo agintaldirako ongi sendotutako lerro batzuk uztea espero duela, eta alkatea konprometitu dela eta bere babesa erakutsi duela prozesuan aurrera jarraitzeko borondatezko txostena idatzi arte txosten hori 2023an aurkezteko.



AYTTOBILBAOLICALI
ZACIÓN.pptx

Presidenteordeak bere aurkezpena eskertu dio Albertori eta elkarrizketarako ireki du mahaia.

Jesús Ochoak azpimarratu du funtsezkoa dela alkatetzak lidertza egikaritzea, eta jakinarazi du Donostiako Udala prozesu horretan dagoela eta alkatea inplikatzeko ari direla lanean. Gainera, horrek aurrekontuekin duen loturari buruz galdetu du. Alberto Ruiz de Azuak azaldu du ekintza-planak aurrekontua ere izango duela.

Noemí de la Fuentek galdetu du ea helizeak prozesurako soilik ote diren eta gero desagertu egingo ote diren. Alberto Ruiz de Azuak argitu du ekintza-planak politiken koherentziako eta helize bakoitzaren buru diren sail guztien artikulazioko barne-lan bat ere ekarriko duela, eta, berresteke badago ere, litekeena da gune hori sendotzea.

Alberto Ruizek adierazi du Bilbo aukeratu dela 2030 Toki Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza gisa, eta, hori horrela, harekiko harremanetan hasia aurreikusi da, eta Bilboren izendapenean erakundeek izan duten inplikazioa eskertu du.

Mikel Hidalgok adierazi du proiektua batera aurkeztu zuten eta egoitzarekin zuzeneko harremana izango duten erakunde guztiek erantzukizuna dutela, baina 2030 agendaren koalizioa izango dela proiektuaren buru.

Mikel Hidalgok jakinarazi du egoitza-tratatua egiteak dagoela eta jakinarazi du, halaber, Nazio Batuetako idazkariorde Amina Mohamed-ek Bilbo bisitatuko duela datozen hilabeteetan egoitza berriari bultzada emateko.

6. GALDE-ESKEAK

Gai-zerrendako azken puntura iritsita, inork galderaren edo eskaeraren bat ote duen galdetu du presidenteordeak.

Paul Ortegak hartu du hitza Lankidetzari eta elkartasunari buruzko lege-aurreproiektuaren izapidetze-prozesuari buruzko informazioa emateko. Lege-aurreproiektuaren alde aurreko onarpen-agindua eman zuen sailburuak maiatzaren 10ean. Maiatzaren 26tik uztailaren 22ra entzuteko eta informazio publikoa emateko izapidea egin zen, eta zenbait gizarte-erakunde eta herritarren erakundek testuari egindako 26 alegazio (alegazio horietatik 6 errepikatuak dira) jaso dira. Aldi horretan ere 19 txosten jaso ziren (txosten horietatik 6 nahitaezkoak dira –Kontseiluak emandakoa barne–), Euskal Jaurlaritzaren zenbait sailek, foru-aldundiek eta Garapenerako Lankidetzaren Erakunde Arteko Batzordeak emanak. Txosten guztiak izan dira aldekoak, Funtzio publikoarena izan ezik. Oro har 200 ekarpen konkretu baino gehiago dira, zenbait kasutan kontraesankorrak beren artean.

Eman beharreko hurrengo pausoak adierazi ditu: 1) lege-aurreproiektuko testu berriaren idazkuntza, behin txostenak eta alegazioak aztertuta; 2) egindako aldaketak biltzen dituen memoria egitea eta integratu gabeko aldaketen justifikazioa.

Honako puntu hauekin dute zerikusia sartzan ari diren aldaketa nagusiek: testua maiatzaren onartu zen Euskal Sektore Publikoaren lege berrira egokitzea, GGKEen agerikotasun handiagoa, krisiaren testuinguruan gehiago sakontzea, Eusko Jaurlaritzaren eta eLankidetzaren artean funtzioak moldatzea, eta ikuspegi tokiko-globalaren eta eraldaketa sozialerako hezkuntzaren aipu esplizituagoak txertatzea, besteak beste.

Gainera, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak, Euskal Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak egitear dituzten txostenak zerrendatu ditu. Behin ekarpenak barnean hartutakoan eta memoria laburra eguneratutakoan, eLankidetzaren Kontseilu Errektoreak Gobernu Kontseiluari helaraziko dio aurreproiektua onartu dezan eta Eusko Legebiltzarrerara bidali dezan. Prozesua al bait bizkorren egiten saiatuko direla adierazi du, halaber.

Epe-aurreikuspenik ba ote dagoen galdetu du Jesús Ochoak. Paulek erantzun dio zaila ikusten duela urte-amaiera baino lehen bukatzea, objektiboa izanda.

Natalia Rodríguezek gogorarazi du Espainiako legea izapidean dagoela, eta eLankidetzak edo Eusko Jaurlaritzak aurreproiektuaren balorazio bat egin ote duten galdetu du. Adierazi du Koordinakundeak egiten duen balorazioaren arabera eskumenen atzeraldi bat eta lankidetzaren deszentralizatuaren mugaketa bat dagoela, eta mehatxu bat bezala bizi dutela hori. Gehitu du alderdiekin landu dutela hori Kongresuan eta argumentu-dokumentu bat bidali zaiela.

Paul Ortegak adierazi du ekarpenak egin zirela hori egitea zegoen faseetan: entzunaldia Senatuan, Diputatuen Kongresuko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Batzordean eta informazio publikoko izapide formalean, elementu nahiko esanguratsuekin: eskumenak, desburokratizazioa/malgutasuna, Estatu azpiko erakundeen parte-hartzea Europar Batasunaren lankidetzaren delegatuan, eta abar.

Juan Manuel Balerdik komentatu du Euskal Fondoak ere alegazioak bideratu dituela Lankidetzaren eta Elkartasun Fondoaren Konfederazioaren bidez, desburokratizazioaren, lankidetzaren delegatua egiteko gaitasunaren eta fondoaren onespenez esplizituaren erreferentzia eginez. Eta alde aurreko agerraldietan parte hartu zutela ere bai.

Paul Ortegak jakinarazi du urriaren 25-27an izango dela Autonomia Erkidegoen eta Garapenerako Lankidetzaren XV. Topaketa Santanderren, non Ekintza Humanitarioak autonomia-erkidegoen esparruan duen rola landuko den. Gainera, GGKEen koordinakundeak egun horietan ere bilduko direla adierazi du, eta topaketa bateratu bat egiteko posibilitatearekin pentsatzen ari direla gune demokratikoa estutzearen erronkari ekiteko.

Noemi de la Fuentek gogorarazi du urteko laugarren eta azken bilkura azaroaren 21eko 12:30ean egitea aurreikusita zegoela, baina litekeena dela eguna aldatu behar izatea bidaia bat dela eta. Adierazi du eguna berretsiko dela edo beste egun bat proposatuko dela albait lasterren.

Presidenteordeak, aztertzeko beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman du bilera 12:33an, bertaratutakoen parte-hartzea eskertuz.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**